

UDAL EUSKALTEGIAK, 25 URTE



1991, urriak 28, goizeko 9:30ean Biteri kultur etxean. 139 ikaslek, 5 irakaslek eta bulegariak hasi genuen udal euskaltegiaren ibilbidea. Lau ikasgela eta bulegoa, horixe zen euskaltegia Biteri barruan.

Hasi eta berehala eskean. Gure lehen eskea irakasle-gela, ez baitziguten irakasle gelarik ere aurreikusitako! Bulegoan ginen denok: bulegaria, zuzendaria eta irakasleak, txoko batean zegoen mahai baten bueltan eskolak prestatzen. Bai, mahai bakarra!

Laster lortu genuen irakasle-gela. Ikasturte gutxi batzuk egin genituen han. Baina euskaltegian handitzen ari zen, irakasle gela txiki eta ikasleentzako gelak ere eskas. Beheko solairura orduan. Bertan irakasle gela eta beste bi gela. Horrela poliki-poliki kultur etxean eman genituen 12 ikasturteetan, hainbat gela *konkistatu* genituen, han-hemenka, euskaltegiaren artxipelagoa osatu arte. 2003an etorri zen jauzia, bete genuen ametsa: eraikin bat guretzat! Orduetik Karobietan gaude, garai bateko anbulatorioan. Izan zen, ordea, aurretik beste proiektu bat, gauzatu ez zena, proiektua eginga bazegoen ere: Villa Manolitarra joatea, gaur egun osasun zentroaren parean zegoen etxe polit batera.

Atzera begira jarri, eta harritu egiten gara nola ematen genituen eskolak. Ordenagailu bakarra genuen, eta hura bulegariak. Irakasleontzat idazmakina bat, bakarra. Ezin txandarik hartu idazteko, eta jarduera asko eta asko eskuz idatzi eta fotokopiatu egiten genituen. Gaur egungo ikaslerik gazteenei kontatzen diegunean, artean jaiotzeko, begiak zabal-zabal eta sinesgogor aurpegia jartzen dute. Materiala ere urri: HABEK argitaratutako karpeta urdinak ziren oinarri. Oraindik ere hor egongo dira nonbait biltegia! Euskarazko egunkaria sortzeko, aldizkari gutxi batzuk... Grabazioak ziren gure salbazioa, geure artean egiten genituenak, alde batetik. Baina horretarako ere ez zegoen gaur egungo smartphonik, irrati kasete beltz haiek ziren geure teknologiarik aurreratuenak. Beste aldetik, ETBn edo Euskadi Irratian zerbait interesgarria sumatuz gero, hortxe arituko ginen etxean garai haietako bideoekin eta kaseteekin grabatzen. Kalitatea, imajinatu!



3.400 inguru ikasle pasa dira 25 urtetan euskaltegitik, adin guztietakoak, eta arrazoia desberdinak izan dituztenak. Baina, azkenean, haiek izan dira euskaltegiaren motorra.

Eta ikasi egiten zuten ikasleek! 3.400 inguru pasa dira urte hauetan guztietan. Hamaika arrazoi direla medio hurbildu dira euskaltegira: batzuk hutsetik hasi eta euskara ikastera, beste batzuk etxean ikasitako euskara janztera, azken urteotan asko lana lortzen lagunduko dielakoan titulazioaren bila... eta ikasleak gogoan, nola ahaztu hasierako urte haietako udako 5 orduko ikastaroetan izaten genituen gaztetxoak eskolan gainditu ez zuten ikasgaia irailan gainditzeko etortzen zirenak, gurasoak ondoan; gaur egun, zorionez, desagertuak. Aldatu dira, bai, gauzak 25 urtetan! Ikasleak dira euskaltegiaren motorra, horiei laguntzea izan da gure helburua eta horretan jarri dugu geure onena urte hauetan euskaltegitik pasa garen 35 irakasleok. Ez da guretzat poz handiagorik gurekin ikasitako ikasleekin kalean topo egin eta euskaraz aritzea baino. Horrek ematen dio balioa eta zentzua gure lanari.

Eta irakasleak aipatu ditugunez, ezin aipatu gabe utzi euskaltegian bizi izan dugun unerik gogorra, gaixotasun luze baten ondoren Lourdesek utzi gintuenekoa, ikasleei eta euskarari erabat emana bizi izan zen irakaslea. Gure artean jarraituko du beti.